

SANTAMASAK

ARRASATE



by Gaud de Nók

Denporia, inddarra eta batezbe elkarlana dittugu egitarau bat aurrera atarateko oinarrizko osagaixak. Herrigintzan ibilli danak ondo daki ametsak egi bihurtu daittezen ezjala inon zain egon biher eta taldian inddarraz edozer gauza lortu leikela; betibe izerdi on batzuk botata, gauzak eztaoz ta zerutik... ikuspuntu diferente ugeri kontutan hartu eta erantzun bateratu bat emunaz. Herri eragile eta mugimenduotan urtiak ein dittugu taldien antolatzen eta gure ametsei alkarreaz forma emuten.

Baina pandemia edo sindemia honek gure indargunietan sortu dittu ahultasun gehixen, lagunen arteko igurtzi faltan, taldien berotasun barik eta herritarren arteko sare barik, herrixa eitten dauen herrigintza herren geratu da eta. Eta herrigintza muskulu kolektibo hori barik ez da ezebe. Izen be, herri eragilietan parte hartzen dounon arteko harremanak ezin die modu sozioekonomiko edo soziolaboraetan ulertu, ez behintzet azken hilabete luze honeittan astetik astera datozen dekretuek ulertu arazi gura dozkuen moruen. Logika horretatik kanpo einddou lan hamarkada luzetan ziber hainbat eta hainbat eragilek, bolondres lanien eta herritar antolatuen sarietan.

Ordaindu ezineko lan, denbora eta inddar asko dau gure herriko egitarauetan. Urtero halaxe izeten da eta 2020 urte arraro honetan be halaxe izengo da, ekitaldixak aurrera ataratia lortuko dounon kasuen, baina baita gogua auki arren, plazara urteteko baldintzaik eukiko ezittuenen kasuan be. Danok dakigun moduen ez ohiko Santamasak izengo die aurtenguak, batezbe 22xek eztauelako protagonismoik eukiko egitarauan.


Hori biherrien, hilebete osoko ekintzen alde einddou eta elkarlanien osatu dou egitaraua herriko eragile, kultur talde, udala eta aurtenguen, Ibai Artek berak be.

Entzun da entzun gabitz gaitzai aurre eitteko gutako bakoitzan arduria ezinbestekua dala, baina erantzukizun hori bizitzako beste esparru askotara eruen biheko litzekela be ezin da ahaztu; zer jaten doun, nun erosten doun, zeini ordaintzen dotzagun, etab. Eztau zalantzaik ardura pertsonala inportantia

dala, baina ardura kolektibo eta publikua daukien papela da gaku; erabakixak hartzen dittuztenen esku dau baterako edo besterako baldintzak sortu edo deuseztia. Eta zoritxarrez, oin arteko indargune genittuen gauza dexente deusezten ikusi dittugu azken hilabetiotan. Ezinak ekinez ein bihe dienez ordia, zailtasunak zailtasun eta ziurgabetasunak ziurgabetasun, abendurako egitarau mardul hau antolatu dou. Eskerrik asko parte hartuko dozueno, baina baita aurten parte hartzeko aukeraik eukiko ez dozueno be.

Beste barik, neguko ospakizunekin gozatzeraz gonbidatu gura zaittuztegu, beti be, onduen falta dittugunak goguen hartuta. Are gehixau aurtenguen!

Ondo pasau!!



Arrasateko **HAINBAT KULTUR TALDE**
Arrasateko **UDALA**
IBAI ARTE
SANTAMAS KOMISIÑUE

ABENDUAK 11 / EGUBAKOITZA

19:00/ Biteri plazako karpan, **Ekiñe eta Bloom taldeen kontzertua**

ABENDUAK 12 / ZAPATUA

11:30-13:30/ Biteri plazako karpan, **jostailu truke azoka**, Txatxilipurdi elkartearen eskutik

17:00/ Amaia antzokian **IKIMILIKILIKLIK ikuskizuna**, Marie de Jongh taldearen eskutik. Familientzat eta 6 urtetik gorakoentzat gomendatua

ABENDUAK 13 / DOMEKA

12:00/ Biteri plazako karpan, **Arrasateko Trikitixa eskolaren emanaldia**, Lore Gazteak dantza taldearen parte hartzearekin

ABENDUAK 14 / ASTELEHENA

18:30/ Kulturateko Areto Nagusian, **“Aralar, mundua leku den lurra” ikus-entzunezkoa eta hizketaldia**

ABENDUAK 15 ETA 16 / MARTIZENA ETA EGUAZTENA

Egunean zehar: Txorontzia eta Txorontzio herriko ikastetxeetara joango dira Olentzeroren gutunak jasotzera

ABENDUAK 17 / EGUENA

19:00/ Amaia antzokian **Gala Lirikoa**. Partaideak: Miren Urbietta, Igor Perales, Alberto Arrabal eta Arkaitz Mendoza. Antolatzailea: Ozenki elkarte

ABENDUAK 18 / EGUBAKOITZA

19:00/ Biteri plazako karpan, **Perlata taldearen "duguna esateko" diskoaren aurkezpena**

19:30/ San Frantzisko elizan **Arrasate Musikaleko Orkestraren kontzertua** eta Arkaitz Mendoza. Antolatzailea: Ozenki elkarte

ABENDUAK 19 / ZAPATUA

9:00-14:00/ Seber Altube plazan, **Baserritarren azoka**

10:00-14:00/ Biteri plazako karpan, **artisansu langintzen jarduera feria**

18:00/ Gaztetxean, **Fito skins eta Sukena taldeen kontzertua**

18:00/ Biteri plazako karpan, **Panoli Kabareta**: Ganso & cia taldearen eskutik.

19:00/ Amaia antzokian, **bertso saioa**. *Bertsolariak: Uxue Alberdi, Ane Zuazubiskar, Beñat Gaztelumendi eta Aitor Sarriegi*. Gai jartzailea: *Saroi Jauregi*. AED elkarteak antolatuta

ABENDUAK 20 / DOMEKA

10:00-14:00/ Biteri plazako karpan, **artisansu langintzen jarduera feria**

19:00/ Biteri plazako karpan, **Arrasateko Gaiteroak & Garinband-en emanaldia**, Arrostitz dantza taldearen parte hartzearekin

ABENDUAK 21 / ASTELEHENA

11:00-14:00_16:00-20:00/ Biteri plazako karpan, Eskuarlean elkarlearen artisau azoka

18:30/ Kulturaleko Areto Nagusian, "Emakumeak euskal dantzetan: Gezur baten historia." Oier Araolaza Arrietaren hitzaldia

ABENDUAK 22 / MARTITZENA

11:00-14:00_16:00-20:00/ Biteri plazako karpan, Eskuarlean elkarlearen artisau azoka

ABENDUAK 23 / EGUAZTENA

11:00-14:00/ Biteri plazako karpan, Eskuarlean elkarlearen artisau azoka

17:00/ Biteri plazako karpan, "Su epeletan" ipuin kontaketa

16:00 eta 19:00/ Amaia antzokian Izaroren kontzertua.

ABENDUAK 24 / EGUENA

11:00-14:00/ Biteri plazako karpan, Eskuarlean elkarlearen artisau azoka

Arratsaldean: Olentzero herriko kale eta auzoetatik ibiliko da

20:00: Olentzerok zerua argituko du

ABENDUAK 26 / ZAPATUA

19:00/ Biteri plazako karpan, Assata "Dantzatu, madarikatuok!" diskoaren aurkezpena

19:00/ Amaia antzokian Arrasate Musikaleko BIG BANDaren kontzertua

ABENDUAK 27 / DOMEKA

18:00/ Gaztetxean, Txakurrak eta The Potes taldeen kontzertua

ABENDUAK 28 / ASTELEHENA

12:00/ Biteri plazako karpan ,Haurrentzako tailerrak eta jolasak, Txatxilipurdiren eskutik

18:00/ Biteri plazako karpan, Sarra Bete taldearen kontzertua

ABENDUAK 29 / MARTITZENA

12:00/ Biteri plazako karpan, Bizi-bizi zirkua. Kiki, Koko eta Moko pailazoak

18:00/ Biteri plazako karpan, Kia's show band musika eta jolasak ingelesez

ABENDUAK 30 / EGUAZTENA

12:00/ Biteri plazako karpan, Aztikeriak emanaldia, Tor eta Txoborro magoak

18:00/ Biteri plazako karpan, Los killos taldearen emanaldia

ABENDUAK 31 / EGUENA

13:00/ Amaia antzokian Arrasate Musikaleko Bandaren kontzertua



Argazkixak/
JON ALZA

----- Maketazioa eta ilustrazioak/



www.desegin.com



ilustrador_Desegin



desegin
